

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

786

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 28koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena.

UPV/EHUko Estatutueta, 180. artikuluan, jasota dago errektoreak ebazpen bat emango duela, argitara emango dena, bere eskumenak taldekideei eskuordetzeko, eta, era berean, ebazpen horretan argi eta garbi adieraziko duela zein errektoreordek egingo dion ordezkoa kanpoan edo gaixorik dagoenean.

Bestalde, UPV/EHUko Estatutueta 183.3 artikuluan zehaztutakoaren arabera, errektoreordek errektoreari lagunduko diote bere lanean, eta gainera beraiei beren-beregi eskuordetutako edo beren gain utzitako zereginak gidatu eta koordinatuko dituzte. Era berean, Estatutueta 186. artikuluan eta hurrengoetan idazkari nagusi eta gerente karguak daude araututa.

2017ko otsailaren 3ko EHAAn argitaratu zen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Ebazpena, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazten dituena, eta eskumenak eskuordetzekoa; gerora, 2018ko apirilaren 19ko ebazpenaren bidez eta 2019ko urriaren 24ko ebazpenaren bidez aldatu egin zen (2018ko maiatzaren 4ko EHAA eta 2019ko azaroaren 5eko EHAA, hurrenez hurren).

2020ko azaroaren 26ko hauteskundeetan UPV/EHUko errektorea hautatu ondoren, beharrezkoa da eskumenen egungo eskuordetzeak aldatzea gobernu talde berriaren egiturara egokitzeko, eta, hain zuzen ere, hori da ebazpen honetan zehaztuko dena.

Adierazitakoagatik guztiagatik, eta unibertsitateko Estatutueta 178. 180. eta 181. artikuluek ematen dizkidaten eskumenen babesean, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 183., 187., 191., 197. eta 198. artikuluetan zehaztutakoarekin bat, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Errektorearen eskumenak gobernu taldeko kideei eskuordetzea I. eranskinean zehaztutakoari jarraikiz.

Bigarrena.– Zehaztea errektorearen gobernu taldearen funtzionamendu arloak, bat etorrita ebazpen honen II. eranskinean zehaztutakoarekin.

Hirugarrena.– Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 10. artikuluan zehaztutakoarekin bat, errektoreak berenganatu egin dezake delegazio bidez ebatzi beharreko gai baten edo batzuen ardura, arrazoi teknikoek, ekonomikoek, juridikoek edota gizartearen edo lurraldearen aldetikoez hala eskatzen dutenean.

Laugarrena.– Eskumenak eskuordetuta aritzean hartuko diren ebazpenetan egoera horren aipamena egin behar da, eta UPV/EHUko errektorearen erabakitzat hartuko dira. Beraz, amaiera emango diote administrazio bideari.

2021eko otsailaren 12a, ostirala

Bosgarrena.– Eskumenak eskuordetzeko orain arte argitaratu diren ebazpen guztiak indargabeta geratuko dira errektorearen eskumenen eskuordetzeak eta gobernu taldearen funtzionamendu arloak zehazten dituen ebazpen hau argitaratzen denean.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Leioa, 2021eko urtarrilaren 28a.

UPV/EHUko errektorea,
EVA FERREIRA GARCÍA.

I. ERANSKINA

GOBERNU TALDEKO KIDEEEN ESKUMENAK ETA ERREKTOREAREN ESKUMENAK
ESKUORDETZEA

Lehenengoa.– Gobernu taldea.

1.– Gobernu taldeko kide dira: errektorea, gobernuaren buru izango da; errektoreordeak; idazkari nagusia; eta gerentea.

2.– UPV/EHUko Estatutuetako 115.2 eta 197. artikuluetan zehaztutakoa betetzeko, euskarako errektoreordea eta unibertsitateko campus bakoitzerako errektoreorde bat izendatuko dira.

3.– Era berean, errektoreordeak izendatuta, errektorearen gobernu taldearen egitura osatzen duten arloetako bat edo batzuk beteko dira.

Bigarrena.– Gobernu taldeko kideen eskumenak.

1.– UPV/EHUko Estatutuetako 183.3 artikuluaekin bat, errektoreorde bakoitzak ebazpen honen bidez izendatua izan deneko arloari atxikita dauden zerbitzuetako jarduerak bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatuko ditu, errektoreak emandako jarraibideak kontuan izanda eta beste errektoreordeekiko koordinazioan, bereziki campusetako errektoreordeekiko deszentralizazio gaitan (campusetan egituratzeko ereduaren antolaketa eta garapenerako oinarrietan zehaztuak; Gobernu Kontseiluak onartua), eta pertsonalaren arloan espezifikoak diren organoei kalterik egiteke.

2.– Campusetako errektoreordeek Unibertsitateko Estatutuetako 197. eta 198. artikuluetan zehaztutako eskumenak izango dituzte, eta horietan zehaztutako eginkizunak beteko; horiez gain, campusetan deszentralizatuta dauden funtzionamendu arloei lotukoak ere izango dituzte.

Horien artean daude:

a) Campuseko kirol eta kultura jarduerak bultzatu eta antolatzea.

b) Esperientzia Gelen jarduera akademikoa antolatzea.

c) Unibertsitateko politika orokorren babesean eta campus bakoitzeko lurralde historikoko erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean, ikerketa jarduera eta ekintzaileen jarduera sustatzea eta enpresak sortzeko ekimenak bultzatzea eta sustatzea, boluntarioen eta garapenerako lankidetzaren arloko ekintzak bultzatzea eta ingurugiro gaitan sentsibilizatzeko ekintzak sustatzea, arreta berezia eskainiz unibertsitateko garraioaren eskaintza hobetzeko gaiari.

d) Unibertsitate egoitzen eskaintza zabaltzeko politika diseinatzea eta garatzea.

e) Campusean unibertsitate giroa osotasunean bizi ahal izatea erraztuko duten laguntza zerbitzuak diseinatu eta gestionatzea (Estatutuetako 154. artikulua), arreta berezia eskainita premia bereziak dauzkaten pertsonaei.

3.– Euskararen arloko errektoreordeak Unibertsitateko Estatutuetako 115., 117. eta 118. artikuluetan zehaztutako eginkizunak beteko ditu.

4.– Idazkari nagusiak Estatutuetako 187. artikuluan aipatutako eginkizunak beteko ditu.

Idazkari nagusiaren zuzendaritzapean lege arloko laguntza emango zaie unibertsitateko gobernu eta ordezkari organoei, hau da: laguntza eta oholku emango du lege arloko gaitan,

bai eta epaiketetako ordezkari eta defentsa gaietan ere prozesu judizialean UPV/EHU prozesuko parte denean.

5.– Gerenteak laguntza eskainiko die gobernu taldeko kideei, kasuan kasuko eginkizunen arloan.

Estatutuetako 191. artikuluan jasotakoari jarraikiz, bere gain hartuko ditu baliabide ekonomiko eta finantzarioen eta ondarearen gestioa, administrazio eta ekonomia gaietako zerbitzuen zuzendaritza eta antolaketa lanak eta gainontzeko zerbitzuen administrazioaren koordinazioa. Hori guztia, Estatutuei jarraituz berari dagozkion gainontzeko funtzioez gain.

Hirugarrena.– Eskumenak eskuordetzea.

1.– Gobernu taldearen egiturari jarraituz arlo bakoitzerako izandatu den errektoreordeari eskuordetzen zaizkio kasuan kasuko esparruan errektoreak dituen eskumenak, kalterik egin gabe sektore publikoko kontratazioaren arloan xedatutakoari.

2.– Eskumenak eskuordetuta, campusetako errektoreordeak unibertsitatearen ordezkariak izango dira, kasuan kasuko campusean, unibertsitateko irakasle eta ikertzaile iraunkor berriek lanpostuak hartzen dituztenean.

3.– Idazkari nagusiari eskuordetzen zaio agintari publikoen aurrean unibertsitatearen ordezkari ofiziala izateko errektoreak daukan eskumena lege eta administrazio arloan. Batez ere, unibertsitateak herriaren defendatzailearekin eta arartekoarekin eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin, bai eta aldezlearekin ere, dituen harremanetan, ondorio horietarako zerbitzu guztiek aurrera eramantzen dituzten jarduerak bultzatu eta koordinatuz.

Idazkari nagusiari eskuordetzen zaizkio, era berean, ondorengo arloetan errektoreak dituen eskumenak:

a) Administrazio elektronikoa planifikatzea eta sustzea, Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordearekin koordinatuta, eta horretarako eratzen den organoaren baitan.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta genero arrazoiengatik edo bestelako arrazoiengatik diskriminaziorik ez izateko politikak diseinatzea eta ezartzea unibertsitateko arlo guztietan: irakaskuntzan, ikerketan, transferentzian, zientziaren zabalkundean eta gestioan.

4.– Gerenteak ondoko eskumenak izango ditu eskuordetuta:

a) Administrazio eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

b) Administrazio eta zerbitzuetako langileak hautatzea, izendatzea eta kontratatzea, karrerako funtzionarioak izendatzea eta lan kontratuko langile finkoak kontratatzea izan ezik, hori errektoreak berak egingo baitu.

c) Eranskin honetako 4. puntuko 4. atalean zehaztutakoak, sektore publikoko kontratazioaren arloan.

d) Zergen alorrean, beste administrazio batzuen aurrean unibertsitatearen ordezkari izatea UPV/EHUK zergapeko legez jarduten duenean.

e) UPV/EHUn ordezkari izatea finantza erakundeetan honakoak egin behar direnean: banku kontuak ireki edo itxi; diruzaintzako kontrola; abalak eskatu beste erakunde batzuetan aurkezteko; kreditu txartelak bertan behera utzi.

f) Unibertsitatean ezarri behar den laneko arriskuen prebentziorako politika antolatu, garatu eta gauzatzea.

5.– Eskumen eskuordetzak kontuan hartuta, errektoreordeei, idazkari nagusiari eta gerenteari dagokie eskumen hauek egikaritzea.

a) Beren arloko hitzarmenak sinatzea, esparruko arautegiei jarraituz eta Gobernu Kontseilua-ren Funtzionamendu Arautegian zehaztutakoaren babesean. Sinatutako hitzarmenen berri eman beharko zaio idazkari nagusiari Hitzarmenen Erregistroan jasotzeko, bai eta eragindako errektoreordei ere.

b) Prozedurei amaiera emateko egintzak egitea eta agiriak eta erabakiak ematea, bai eta horren berri ematea eragindako hirugarrenei ere.

c) Gobernu taldeko kideek, eskuordetuta dituzten eskumenen babesean, egindako egintzen kontra jarritako berraztertze errekursoak ebaztea.

d) Informazio publikoa eskuratzeko eskariak izapidetu eta ebaztea, beren eskumenerako gaiei dagozkienean, bat etorrita Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak dioenarekin, bai eta aplikatu beharreko gainerako arauak diotenarekin ere.

Laugarrena.– Eskuordetutako beste eskumen batzuk.

1.– Kide anitzeko organoetako presidente kargua.

Unibertsitateko errektoreari jarraian adierazitako organo edo batzordeetako buru izatea dagokio lege, estatutu eta arautegian adierazitakoaren arabera, baina eskuordetu egingo ditu ondokoaren arabera:

1.1.– Unibertsitateko Irakasleen Batzordea.

Irakasle-ikertzaileen arloa esleituta daukan errektoreordeari eskuordetzen dio Unibertsitateko Irakasleen Batzordeko buru izatea (Unibertsitateko Estatutuetako 48.1 artikuluan jasotako batzordea).

1.2.– Graduoko Batzordea.

Graduaren eta hezkuntza berrikuntzaren arloa esleituta daukan errektoreordeari eskuordetzen dio Graduoko Batzordeko bileretan buru izatea.

1.3.– Graduondoko Batzordea.

Graduondokoaren eta etengabeko prestakuntzaren arloa esleituta daukan errektoreordeari eskuordetzen dio Graduondoko Batzordeko bileretan buru izatea.

1.4.– Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea.

Ikerketako arloa esleituta daukan errektoreordeari eskuordetzen dio Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeko buru izatea (Unibertsitateko Estatutuetako 99. artikuluan jasotako batzordea).

1.5.– Ekonomia Batzordea.

Koordinazio gaien arloa esleituta daukan errektoreordeari esleitzen dio Gobernu Kontseiluak eskuordetutako Ekonomia Batzordeko buru izatea.

1.6.– Laneko Segurtasun eta Osasunerako Campusarteko Batzordea.

Gerenteari eskuordetzen dio batzorde honetako buru izatea.

1.7.– Estatutuak eta Arautegiak Garatzeko Batzordea.

Idazkari nagusiari eskuordetzen dio batzorde honetako buru izatea.

2.– Diziplina gaiak.

Errektoreak dauka diziplina arloan pozedura hasi eta izapideak egiteko eskumena, bai eta zigorrak jartzekoa ere, baina eskumen horiek irizpide hauei jarraikiz eskuordetzen ditu:

a) Ikasleen hutsegiteak arinak direnean, kasuan kasuko ikastegiko dekanok eta zuzendariari.

b) Irakasle eta ikertzaileek egindako diziplina hutsegiteen kasuan, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari.

c) Administrazio eta Zerbitzuetako langileen diziplina hutsegiteen kasuan, gerenteari.

3.– Hauteskunde gaiak.

Errektoreari dagokio hauteskundeen arloan sor daitezkeen errekursoak aztertzea, kasuan-kasuan ezar daitezkeen arautegiaren arabera.

4.– Sektore publikoko kontratazioa.

1.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen arabera, kontratazio organoen berezko ahalmenak errektoreak izango ditu, eskuordetu egin ahal izango dituen arren unibertsitateko Estatutuak 230.1 artikulua babesean.

Estatutuak artikulua horri jarraikiz, UPV/EHUko gerenteari eskuordetzen zaizkio bost milioi euroko aurrekontua edo handiagoa (BEZ gabe) duten kontratuak, kontratu txikiak izan ezik. Azken kontratu horiek UPV/EHUren Aurrekontuetako Gestio Ekonomikoaren Araubide Orokorreko 2. atalean aipatzen diren gune organikoetako organo arduradunei eskuordetzen zaizkie.

Aipatutako gune organikoen gestio ekonomikoaren arduradun biak (lehenengo eta bigarren sinatzailea) unibertsitateko organoak badira, unibertsitateko Estatutuak 11. artikulua araberak, lehenengoak izango du eskuordetza; arduradun bietako bat ere ez bada unibertsitateko organoa, kasuan kasuko errektoreorde eskudunak izango du.

Edonola ere, erantzukizunari dagokionez, beharrezkoa izanez gero, erabaki honen arabera eskumena eskuordetuta izango dutenei aplikatuko zaie Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeko hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa.

2.– Euskal Herriko Unibertsitateko Kontratazio Mahai Iraunkorra kide hauek osatuko dute, bai mahai hori egotea nahitaezkoa denean, bai mahaia egotea aukerakoa denean:

a) Mahaiburua: Kontratazio Zerbitzuko burua; pertsona hori kanpoan edo gaixorik badago, beste edozein arrazoiengatik ez badago, edo lanpostua hutsik badago, Kontratazio Zerbitzuari atxikitako gestioko teknikari batek ordezkatu du.

b) Mahaikideak:

– UPV/EHUko Administrazio Kontratazio Lege Aholkularitzako Atalaren burua; pertsona hori kanpoan edo gaixorik badago, beste edozein arrazoiengatik ez badago, edo lanpostua hutsik badago, kontratazioaren arloko lege aholkularitzako eginkizunak dituen teknikariak ordezkatu du.

- Kontratazio Zerbitzuari atxikitako gestioko teknikari bat.
- Barne Kontroleko Zerbitzuko burua; eta pertsona hori kanpoan edo gaixorik badago, beste edozein arrazoiengatik ez badago, edo lanpostua hutsik badago, aipatutako zerbitzuari atxikitako auditore batek ordezkatuko du.
- Kontabilitate Zerbitzuko burua; eta pertsona hori kanpoan edo gaixorik badago, beste edozein arrazoiengatik ez badago, edo lanpostua hutsik badago, aipatutako zerbitzuari atxikitako gestioko teknikari batek ordezkatuko du.

c) Idazkaria: Kontratazio Zerbitzuari atxikitako gestioko teknikari bat.

Funtzionamendu araubidea izango da sektore publikoaren kontratuei buruzko lege eta arauetan xedatutakoa, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoen gainean xedatutakoa.

5.– Baimenak.

Ikastegietako dekanok eta zuzendariak eskuordetzen zaizkie baimenak izapidetzeko eta emateko eskumenak, beti ere, baimenak 15 egunetik gorakoak ez badira. Hori guztia 2003ko apirilaren 1eko erabakiari jarraituz (2003ko apirilaren 16ko EHAA).

6.– UPV/EHUko egiturak sortu, aldatu edo kentzea eta nortasun juridiko berezia daukaten egituretan UPV/EHU partaide eta sortzaile izatea.

Kasuan kasuko egituraren xedeak nagusiki eragindako arloko eskumenak eskuordetuta dituen errektoreordeari eskuordetzen zaizkio unibertsitateko egiturak sortu, aldatu eta kentzeko beharrezko diren jarduerak bultzatu, izapidetu eta kudeatzeko errektoreak dituen eskumenak, bai eta UPV/EHUK nortasun juridiko berezia duten beste egitura batzuk sortu eta horietan parte hartzekoak ere.

Bosgarrena.– Eskuordetutako eskumenak gauzatzean sortutako arazoak ebaztea.

Errektoreak ebartziko ditu ebazpen honen bidez eskuordetutako eskumenak gauzatzean sortzen diren arazoak edo zalantzak; guztia bat etorrita Estatutuaren 161. artikularekin.

Seigarrena.– Sinadura eskuordetzea.

Gobernu taldeko kideek beren mendeko langileei eskuordetu ahal izango diete ebazpen honetan eskuordetutako eskumenei buruzko ebazpenak eta gainerako administrazio jarduerak sinatzea, ezarritako baldintzetan eta irismenarekin.

II. ERANSKINA

ERREKTOREAREN GOBERNU TALDEAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDU ARLOA

Lehenengoa.– Gobernu taldearen funtzionamendu arloak.

Errektorearen gobernu taldea funtzionamendu arlo hauen arabera antolatuko da:

1.– Ikerketaren arloa.

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

- a) UPV/EHU n ikerketa jarduera programatzea eta bultzatzea.
- b) UPV/EHU k parte hartzea ikerketa jardueretan, mota guztietako erakunde pribatu zein publiko, bertako zein beste herrialde batzuetakoek, bultzatuak eta deituak.
- c) Irakasleen ikerketa jardueraren ebaluazioa.
- d) Ikerketako Zerbitzu Nagusiak eta azpiegitura zientifikoak.
- e) Unibertsitate biblioteka eta informazio zientifikoa eta dokumentazioa erabiltzeko baliabideak.
- f) Ikerketa jardueraren etika.
- g) Ikerketako laguntza programei buruzko erabakiak.
- h) Kontratu berriak egiteko edo horien jarraipena egiteko edo kontratuak luzatzeko jarduerak, bai ikertzaileen kasuan, bai prestakuntza bidean egonik proiektuen, hitzarmenen edo dirulaguntza zuzetzen bidezko finantzaioa daukaten ikertzaileen kasuan.
- i) Unibertsitatearen ordezkari izatea UPV/EHU kide duten erakundearen gobernu organoetan (bereziki ZTBES), beste errektoreordetza batzuei berariaz dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.
- j) Erakunde publiko eta pribatuetan unibertsitatearen ordezkari izatea eta haiekin lankidetzan aritzea ikerketa, transferentzia eta berrikuntza sustatzeko, beste errektoreordetza batzuei berariaz dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.
- k) UPV/EHUko unibertsitate institutuak eta ikerketa egiturak, Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin koordinatuta.

2.– Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloa.

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

2.1.– Zientzia eta gizarte garapena:

- a) Nazioarteko Bikaintasun Campusa (Euskampus) eta Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa hedatzeko ekintzen koordinatzea.
- b) EHU Taldea egituratuko duen politika antolatzea.
- c) UPV/EHUko Zientzia Parkea, unibertsitate institutuak eta ikerketako UPV/EHUko beste egitura batzuen jarripen eta antolaketa jarduerak, Ikerketaren arloko Errektoreordetzarekin koordinatuta.

d) Lankidetzak publiko-pribatua eta unibertsitate-enpresa ekimenak eta elkarkidetzak publiko-pribatuak bultzatzea eta, egoki denean, sortzea.

e) Unibertsitatearen ordezkari izatea UPV/EHU kide duten erakundearen gobernu organoetan (bereziki ZTBES), beste errektoreordetza batzuei berariaz dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.

f) UPV/EHUK nazioartean daukan egoera aztertzea eta jarraipenerako prospektiba lana, Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errektoreordetzarekin koordinatuta.

g) Jasangarritasunaren eta gizarte konpromisoaren arloan (kudeaketa, irakaskuntza, ikerketa eta transferentziaren arlokoan) jarduerak estrategiak garatzea, bat etorrita Garapen Jasangarriko Helburuekin.

h) Erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzak jarduerak, jasangarritasun eta gizarte konpromisoaren esparruan.

i) Gizartearekin biltzeko solasguneak eta eztabaidaguneak, Euskara, Kultura eta Nazioarteko-zearen arloko Errektoreordetzarekin koordinatuta.

2.2.– Transferentzia eta zabalkundea:

a) Erakunde publiko eta pribatuetan unibertsitatearen ordezkari izatea eta haiekin lankidetzan aritzea ikerketa, transferentzia eta berrikuntza sustatzeko, beste errektoreordetza batzuei berariaz dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.

b) Ikerketan sortutako jakintza transferitzea, sustatzea eta merkaturatzea; horretarako behar diren kontratuak sinatu ahal izango ditu.

c) Estatutuetako 97. artikuluan zehaztutako kontratuak sinatu eta gainbegiratzea, egoki denean.

d) Ikerketaren Emaitzak Transferitzeko Bulegoa eta transferentzia gestionatzeko entitateak, unibertsitateak parte hartzen duenetan.

e) Ikerketatik eratorriko jabetza intelektual edo industrialaren eskubideetan izena emateko edo erregistratzeko baimenak eta eskariak.

f) Unibertsitatean sortzen diren ekintzazailtzak jarduerak, enpresa ekimenak eta enpresak sortze-koak diseinatzea, koordinatzea eta garatzea. Babesa eta mezenasgoa.

g) Ikerketa eta zientzia gizartearen zabaltzeko estrategia.

h) Irakasleen transferentzia eta zabalkunde jarduerak ebaluatzea.

i) Zientzia Astea antolatzea eta egitea, bai eta ezagutza zabaltzeko beste antzeko jarduerak batzuk ere, hala nola, Ikertzaileen Europako Gaua.

3.– Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloa:

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

3.1.– Gradua:

a) UPV/EHUren harremanak unibertsitate aurreko ikasketak ematen dituzten ikastetxeekin.

b) Unibertsitate sartzeko probak.

c) Graduoko titulu ofizialeko ikasketen informazio akademikoa eta gestioa, beste arlo batzuei berariaz emandakoak izan ezik.

d) Graduoko ikasketa ofizialetako tituluak, egiaztagiri akademikoak eta Tituluaren Europar Gehigarria (TEG) ematea.

e) Arlo akademikokoak izanik beste errektoreordetza batzuei emandako eginkizunak koordinatzea.

f) Graduoko ikasketa ofizialetako beken deialdi ofizialen gestioa.

g) Graduoko tituluak ezarri eta kentzeko eskariak egiaztatzea eta baimenak ematea, eta titulu horiek Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluaren Erregistroan sartzeko eskariak.

h) Graduoko ikasketa ofizialen jarraipena eta titulazioen akreditazioa, eta enplegarritasun, nazioartekotze eta irakaskuntza berrikuntzako bektoreak hobetzea bultzatzea errektoreordetza eskudunekin koordinatuta.

i) Ikastegiak UPV/EHUra atxikitzea graduoko ikasketak emateko, eta ikastegi horien koordinazio eta kontrol lana.

j) Graduoko ikasketa ofizialekin lotutako jarduera guztiak edo ikasketa horien ondorioz eraginda-koak, erakunde edo administrazioaren aurrean egin beharrekoak edo interesatuek eskatutakoak, betiere, arautegietan jasota badaude edo arautegiak betez egin beharrekoak badira.

3.2.– Hezkuntza berrikuntza:

a) Ikastegien eta antolaketa unitateen prozesuen kalitatea ebaluatzeko laguntza, bai eta UPV/EHUUn eskaintzen diren titulazioen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena ere.

b) Irakasle-ikertzaileen prestakuntza unibertsitatearen helburu estrategikoekin bat etorrira, eta irakasle-ikertzaileen arloko eskumenak dituen errektoreordetzarekin koordinatuta.

c) Berrikuntza programak ezartzea eta zabaltzea titulazioak hobetzeko irakaskuntza berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta enplegarritasunaren arloetan, beste errektoreordetzekin koordinatuta.

d) UPV/EHUko irakasleen irakaslan ebaluatzeko sistema diseinatzea.

e) Kalitatearen kudeaketa eta emaitzen eta praktika egokien difusiorako prestakuntza.

f) Kalitate agentziekin harremanak.

4.– Graduondokoaren eta etengabeko prestakuntzaren arloa.

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

4.1.– Graduondokoa:

a) Graduondoko titulu ofizialetako ikasketak (masterrak eta doktoregokoak) ezarri eta kentzeko egiaztapenak eskatzea eta baimenak ematea, beste arloko batzuei berariaz esleitutakoak izan ezik.

b) Graduondoko titulu ofizialetako ikasketen gestioa eta planak eta informazio akademikoa, beste arlo batzuei berariaz esleitutakoak izan ezik, eta titulu horiek Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluaren Erregistroan sartzeko eskariak.

c) Graduondoko ikasketa ofizialetako tituluak, egiaztagiri akademikoak eta Tituluaren Europar Gehigarria (TEG) ematea.

d) Graduondoko ikasketa ofizialen jarraipena eta titulazioen akreditazioa, eta enplegarritasun, nazioartekotze eta irakaskuntza berrikuntzako bektoreak hobetzea bultzatzea errektoreordetza eskudunekin koordinatuta.

e) Graduondoko ikasketa ofizialetako beketarako deialdi ofizialen gestioa.

f) Graduondoko ikasketa ofizialekin lotutako jarduera guztiak edo ikasketa horien ondorioz eragindakoak, erakunde edo administrazioaren aurrean egin beharrekoak edo interesatuek eskatutakoak, betiere, arautegietan jasota badaude edo arautegiak betez egin beharrekoak badira.

g) Doktoregoko atzerriko tituluaren parekotasuna zehaztea.

h) Ikastegiak UPV/EHUra atxikitzea graduondoko ikasketak emateko, eta ikastegi horien koordinazio eta kontrol lana.

4.2.– Berezko tituluak eta etengabeko prestakuntza:

a) Baimenak berezko tituluak emateko ikasketetarako eta etengabeko prestakuntzako beste ikasketa batzuetarako, adibidez Esperientzia Geletarako, bai eta etengabekoa ez den prestakuntzako ikastarotarako ere.

b) Berezko ikasketen informazio akademikoa eta gestioa, bai eta etengabeko prestakuntzako ikasketei buruzkoa ere.

c) Tituluak, diplomak eta egiaztagiriak.

d) Harremanak erakunde publiko eta pribatuekin eta profesionalen elkargoekin etengabeko prestakuntzaren arloko premiak antzemateko eta premia horiei erantzun bat emateko.

e) Onlineko irakaskuntza bultzatzea eta eCampusa garatzea eta eguneratzea.

f) Aipatutako ikasketekin lotuta erakunde edo administrazioaren aurrean egin beharreko jarduera guztiak, edo ikasketa horien ondorioz eragindakoak, edo interesatuek eskatutakoak, betiere, arautegietan jasota badaude edo arautegiak betez egin beharrekoak badira.

5.– Ikasleak eta enplegarritasunaren arloa.

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

5.1.– Ikasleak:

a) Unibertsitate sartzeari buruzko informazioa unibertsitate etortzekoak diren ikasleentzat: UPV/EHUri buruzko informazioa eta horren zabalkundea; ikasleak erakartzea; ikasleei laguntza eta informazioa ematea matrikula egiteko fasean.

b) Unibertsitatean dauden ikasleentzako laguntza (ikastaroak, beka, jarduerak...).

c) Premia bereziak dituzten ikasleen ikasketa premiez arduratzea eta erantzuna ematea.

d) Unibertsitateko kideentzako laguntza psikologikoa Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuaren bidez.

e) Ikasle ohien elkarteekin (EHUalumni) harremanak: kanpoko jarduerak bultzatzea eta zabaltzea.

- f) Ikasleen kontseiluek sustatutako jarduerak antolatzeko eta egiteko laguntza.
- g) UPV/EHUko ikasleen elkarteekin harremanak.
- h) UPV/EHUko gobernu organoetan ikasleek duten partaidetzaren jarraipena.
- i) Desgaitasunen bat daukaten unibertsitateko kideentzako laguntza eta haien eskakizunei erantzutea.
- j) ENLIGHT Europako unibertsitateen proiektua eta proiektu horren barruan UPV/EHU egiten diren jarduerak koordinatzea eta bultzatzea.
- k) Graduondoko Sare Latinoamerikarra koordinatzea eta sare hori beste unibertsitate batzuetara eta jakintza arloetara zabaltzeko estrategia.

5.2.– Enplegarritasuna:

- a) Lan mundura sartzeko ikasleentzako prestakuntza, bai eta lan mundurako trantsizio aldiaren informazioa eta orientabidea ematea, campuska eta politika orokorrari jarraituz.
- b) Curriculumeko eta curriculumetik kanpoko praktiken gestioa.
- c) Euskal sare sozioekonomikoko erakunde publiko eta pribatuekiko harremanak, bai eta beren elkarteekikoak ere, prestakuntza duala garatu eta ezartzeko eta unibertsitateko tituluen enplegarritasuna hobetzeko; hori guztia campusekin eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin koordinatuta.
- d) Kultura ekintzailea ikasleen artean sustatzeko jarduerak koordinatzea eta jarraipena egitea –campusetako ekintzailatza programen barruan egiten direnak– eta gazte ekintzailatzarako beken gestioa.

6.– Euskararen, kulturaren eta nazioartekotzearen arloa.

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

6.1.– Euskara:

- a) Euskararen jakite-mailaren egiaztapenak.
- b) IRIen eta AZPkoen hizkuntza prestakuntza eta hobekuntza, irakasle-ikertzaileen arloko esku-menak eskuordetuta dituen errektoreordetzarekin eta gerentziarekin koordinatuta.
- c) Irakats materialak euskaraz egitea bultzatzea.
- d) Euskarazko hizkuntza baliabide digitalak sustatzea.
- e) Euskara sustatzeko eta nazioko zein atzerriko foroetan euskara hedatzeko eta ikusgarri egiteko jarduerak bultzatzea.

6.2.– Kultura:

- a) Artearen eta kulturaren arloko prestakuntza, ikerketa, parte hartzea eta hedakuntza, campusetako errektoreordetzen eta kasuan kasuko arloen laguntzarekin eta haiekin koordinatuta, eta, era berean, bertoko zein atzerriko eragile akademikoen eta kulturaren arlokoen laguntzarekin eta haiekin koordinatuta.

b) Hezkuntzak, irakaskuntzak, ikerketak eta kulturak aurrera egin dezaten interesgarriak diren lan zientifiko, tekniko eta artistikoak editatzea, koeditatzea eta horiei zabalkundea ematea.

6.3.– Nazioartekotzea:

a) Atzerriko unibertsitateekin edo beste mota bateko erakundeekin lankidetzan aritzeko jarduerak, batez ere mugaz gaindiko campusarekin eta Enlightekin.

b) Ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak atzerriko beste erakunde batzuetakoekin trukatzeko jarduerak gestionatzea eta sustatzea.

c) Mugikortasun programen gestioa.

d) Atzeritik datozen ikasleei harrera egitea.

e) Graduaren eta hezkuntza berrikuntzaren eta graduondokoaren errektoreordetzekin lankidetzan aritzea UPV/EHUko titulu ofizialen «nazioartekotze bektorea» hobetzeko eta bultzatzeko.

f) Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan jarduerak, atzeritarrentzako euskara eta gaztelania ikastaroen arloan, zein unibertsitatean ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuen arloan; hori guztia beste errektoreordetza batzuei berez dagozkien arloei kalterik egin gabe.

g) Irakats eskaintzan hizkuntza ez-ofizialak, batez ere ingelesa, sartzeta eta bultzatzea.

h) Irakasleen egiaztagiria hizkuntza ez ofizialetan emateko eskolak.

i) Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak nazioarteko foroetan duen presentzia eta atzerrian bere ikusgarritasuna eta proiektzioa sustatzeko beharko lirakekeen ekintzen inguruko beste edozein eginkizun.

7.– Irakasle-ikertzaileen arloa.

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

7.1.– Irakasle eta ikertzaile irudiei buruzko araudia:

a) Hautaketa, prestakuntza eta sustapena.

b) Egoera akademikoak eta administrazio eta lan arlokoak.

c) Bateragarritasunak.

d) Eskubideak eta betebeharrak.

e) UPV/EHUrekiko harremana amaitzea.

f) Baimenak.

g) Ordainsariak.

h) Izendapenak eta kontratazioak.

7.2.– Irakasle-ikertzaileen plantilla eta irakats jarduera:

a) Irakasle-ikertzaileen plantilla planifikatu eta gestionatzea.

b) Irakats lana esleitzeko prozesua koordinatzea.

c) Esleitutako irakats jarduna bete egiten dela zaintzea.

d) Sailekin, ikastegiekin eta gizarte ordezkariekin bitartekari lana irakasle-ikertzaileen arloko gaitan.

8.– Eraldaketa digitalaren eta komunikazioaren arloa.

Arlo honetan gai hauek biltzen dira:

8.1.– Eraldaketa digitala:

a) IKT zuzentzea eta baliabide digital guztiak modernizatzea eta egungo premietara egokitzea.

b) Administrazio Elektronikoa hobetzea horretarako ezarritako organoaren baitan eta Idazkari-tza Nagusiarekin koordinatuta.

8.2.– Komunikazioa eta koordinazioa.

a) Diziplina arteko proiektuak koordinatzea.

b) Unibertsitatearen plangintza estrategikoa eta emaitzak aztertzea.

c) Barne kontroleko zerbitzuaren jarduera koordinatzea eta jarraipena egitea.

d) Ekonomia eta finantza arloko politika koordinatzea.

e) UPV/EHUren jarduera ekonomikoen nondik norako orokorrak zehaztea, Gobernu Kontseiluak emandako xedapenei jarraikiz.

f) Errektorearen ordezkari izatea unibertsitate barruko organoetan, ekonomia arloari dagokionean.

g) Unibertsitatearen barne eta kanpoko komunikazioaren gestioa eta informazio eskariei eta kontsulta guztiei erantzutea.

h) UPV/EHUren egoera eta nazioartean daukan egoera aztertzea, jarraipena egitea eta prospektiba lana, Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin koordinatuta.

i) Unibertsitatearen irudi korporatiboa kanpoan zabaltzera zuzendutako jarduerak.

j) Informazio estatistikoaren koordinazioa.

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

791

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 25ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen gobernu taldeko errektoreordeak eta idazkari nagusia izendatzeko.

Hauteskunde prozesua behin bukatuta, Hauteskunde Batzorde Nagusiak, 2020ko abenduaren 3an egindako bileran, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektore kargurako hautagai hautetsi aldarrikatu zuen Eva Ferreira García andrea, eta UPV/EHUko errektore izendatua izan da urtarrilaren 19ko 10/2021 Dekretuaren bidez (2021eko urtarrilaren 25eko EHAA).

UPV/EHUko Estatutueta 183.1 eta 186.1 artikuluen bidez ditudan ahalmenen babesean (otsailaren 15eko 17/2011 Dekretua; otsailaren 24ko EHAA), eta bat etorrita errektoreak 2021eko urtarrilaren 25ean emandako erabakiarekin (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko emandako erabakia),

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Izendatzea, 2021eko urtarrilaren 25etik aurrerako ondorioekin, errektorearen gobernu taldeko errektoreordeak eta idazkari nagusia, hau da:

Gorka Moreno Márquez, Bizkaiko Campuseko errektoreordea.

Manuela Igartua Olaechea, Arabako Campuseko errektoreordea.

Agustin Erkizia Olaizola jauna, Gipuzkoako Campuseko errektoreordea.

María Juncal Gutiérrez Mangado, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea.

Federico Recart Barañano, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea.

Montserrat Maritxalar Anglada, Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea.

Inmaculada Arostegui Madariaga, Ikerketaren arloko errektoreordea.

Guillermo Quindós Andrés, Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea.

Fernando Tapia Alberdi, Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordea.

Laura Vozmediano Sanz, Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea.

Juan José Unzilla Galán, Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordea.

Aitor Zurimendi Isla, idazkari nagusia.

2021eko otsailaren 12a, ostirala

Bigarrena.– Izendatutako pertsonak erabat salbustea irakats betebeharretatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Leioa, 2021eko urtarrilaren 25a.

Errektorea,
EVA FERREIRA GARCÍA.